

korrika laguntzaileon buletina

Gero eta gutxiago falta da, 60 bat egun, 20. KORRIKAren lekukoa eskuz eskuz ibiltzen hasteko.

Izan ere, martxoaren 30ean abiatuko da, Otxandiotik. Bitartean, egun hori iritsi aurretik, beste ekimen asko antolatzen ari gara (buletinean emango dizuegu haien berri).

KORRIKA indartsu dago, besteak beste, 10.000 KORRIKA Laguntzaile baino gehiago dituelako. ESKERRIK ASKO! Zuek zarete gure zutabe nagusietako bat.

saridunen txokoa

Aurten, zozketak ere egingo ditugu Laguntzaile guztion artean. Aurreko buletinean, lehen saridunen berri eman genizuen. Orduetik, beste bi zozketa egin dira, eta hauek dira saridun batzuk. Guztien berri [hemen](#).

1. SARIA

Bigarren zozketa

(Nerea Arrieta Perurena - Burlata)

Hirugarren zozketa

(Arantza Irulegi Garmendia - zumaia)

Nekatur. Bonu berdea:

2 lagunentzako 2 gau+gosaria.

2. SARIA

Bigarren zozketa

(Kiko Martinez Apesteguia - Amurrio)

Hirugarren zozketa

(Lourdes Abendaño - Astigarraga)

Hontza Extrem abentura parkerako

2 sarrera bikoitz. (2 sarrera, sarrera

bakoitza bi lagunentzat)

3. SARIA

Bigarren zozketa

(Feli Apoita Apoita - Bolibar)

Hirugarren zozketa

(Alessandra De Schmidt - Mendaro)

Uxarte Sagardotegian 30 eurotako

bazkari edo afarria (2 pertsonentzat)

Otsailaren 11n, KORRIKA maite dugunon topalekua: KORRIKAren urtemuga-jaia.

Bai, 1980. urtean abian jarri zen ideia ero eta zirrargarriak 20. edizioa beteko du 2017an, mundu osoan parekorik gabeko ekimen erraldoia bihurtuta. Beraz, iritsi da egundoko festa egiteko unea: KORRIKAren urtemuga-jaia, hain zuzen.

KORRIKA Laguntzaileontzat ere egun berezia izatea nahi dugunez, gogoratu izena ematea: [HEMEN](#).Gozatu bideaz!

Otsailaren hasieran, 20. KORRIKAren KORRIKA KULTURALA bere bidea egiten hasiko da.

Egunotan, datozen asteotako agenda iragartzen ari gara ([hemen duzue informazioa](#)). KORRIKA aplikazioan ere agenda eskura duzue. Gozatu eta zabaldu zuen inguruan.

KORRIKA ibilbidea.

Dagoeneko iragarri dugu 20. KORRIKAren ibilbide zehatza. Herri nagusietako ibilbidea hedatzen ari gara, baina zuoi, laguntzaileoi, ibilbide zehatzaren berri eman nahi dizuegu, kilometroz kilometro. [HEMEN](#) duzue.

Oharra: lekukoa senideekin, elkarteko kideekin, lagunekin... eraman nahi baduzue, jar zaitezte harremanetan KORRIKA bulegoekin kilometro zehatza hartzeko eta diru-ekarpena egiteko.

Laster errepidera aterako gara, mundura, herriz herri igaroko gara.

[ZIRKORRIKA-20. KORRIKAren ABESTIA](#)

Apenas faltan dos meses para que el testigo de KORRIKA se ponga en movimiento, atravesando Euskal Herria de mano en mano; apenas 60 días para que comience, en Otxandio, su vigésima edición. Mientras tanto, nuestra agenda continúa llenándose de distintos actos e iniciativas (encontraréis información al respecto en este mensaje). Por lo tanto, por un lado, queremos recordaros que el 11 de febrero celebraremos la fiesta de aniversario de KORRIKA, y, por otro lado, os enviamos la información exacta del recorrido, de KORRIKA Kulturala, la app KORRIKA, y la canción de la presente edición. Sin otro particular, aquí os dejamos el mensaje de un Laguntzaile anónimo, de una persona de entre tantas que apoyáis KORRIKA. Eskerrik asko, Iñaki, eta eskerrik asko zuoi ere; gozatu bideaz!

Il reste à peine deux mois avant que le témoin de Korrika ne s'élançe, passant de main en main, à travers le Pays Basque ; 60 jours avant que ne débute, à Otxandio, la 20ème édition de la course relais.

En attendant, notre agenda continue de se remplir d'initiatives et d'événements (vous trouverez plus d'infos à ce sujet dans ce même message).

Nous vous rappelons que le 11 février, nous nous retrouverons pour la fête-anniversaire de Korrika.

Nous vous envoyons également l'information sur le parcours, la KORRIKA culturelle, l'app KORRIKA et la chanson de cette nouvelle édition.

Pour terminer, nous joignons le message d'un bienfaiteur anonyme, d'une personne parmi tant d'autres qui soutiennent la KORRIKA. Eskerrik asko, Iñaki, eta eskerrik asko zuoi ere; gozatu bideaz!

Zergatik zara korrika laguntzaile?

-dun atzizkiarekin batera izana eman didan hizkuntza honek, beste pertsona BATZUK euskalDUNdu ditzan

Iñaki Azkona

Korrika laguntzaile bat



Aurretik adierazi bezala, buletin hauen bitartez gure arteko komunikazioa indartu nahi dugu, zuoi propio egokitutako informazioa helarazita. Era berean, [www.korrika.eus](#) webgunean, Laguntzaileoi begirako atala duzue. Hori bai, guri zuzenean mezuren bat helarazi nahi badiguzue, idatzi lasai asko helbide honetara: tito-s@aek.eus (KORRIKA Laguntzaileen gaineko proposamenak, zalantzak eta bestelakoak gustura entzungo ditugu).

Besterik ez, laster arte eta gozatu bideaz!